

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak. 2021eko azaroa

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak bost aldiz handiagoak izan dira 2021eko azaroan

Turista atzerritarra berreskuratu egin da, 2020ko azaroan lortutako zifrak bider bederatzi eginez

Eustatek landutako datuen arabera, 2021eko azaroan 212.538 sarrera eta 392.209 gaualdi erregistratu dira Euskal AEko hotel-establezimenduetan.

Hotel-sektorearen suspertzea, 2020ko azaroaren aldean, % 413,8koa izan da, beraz, sarreren kasuan, eta % 333,4koa gaualdienean. 2019ko azaroarekin, Covid-19aren pandemiaren aurreko azaroarekin, alderaketa eginez gero, ikusiko dugu zifrak ordukoetara hurbiltzen direla. Izan ere, sarrerak hilabete hartako % 93,1 izan dira, eta gaualdiak % 90,1.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak, gaualdiak, batez besteko egonaldia. 2021eko azaroa

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez besteko egonaldia	
	2021/11	m/m-12 (%)	2021/11	m/m-12 (%)	2021/11	2020/11
EUSKAL AE	212.538	413,8	392.209	333,4	1,85	2,19
Estatukoak	144.871	328,0	265.465	262,3	1,83	2,16
Atzeritarrak	67.667	800,1	126.744	636,1	1,87	2,29
ARABA/ÁLAVA	29.784	281,2	59.482	230,2	2,00	2,31
Estatukoak	23.280	265,8	45.973	207,6	1,97	2,35
Atzeritarrak	6.504	349,2	13.509	340,2	2,08	2,12
Vitoria-Gasteiz	22.006	227,1	47.553	208,7	2,16	2,29
BIZKAIA	96.157	387,2	174.577	278,9	1,82	2,33
Estatukoak	67.773	300,5	119.179	213,0	1,76	2,25
Atzeritarrak	28.384	909,7	55.398	592,1	1,95	2,85
Bilbao	67.514	466,3	122.217	369,7	1,81	2,18
GIPUZKOA	86.597	526,7	158.150	499,0	1,83	1,91
Estatukoak	53.818	409,6	100.313	395,2	1,86	1,92
Atzeritarrak	32.779	905,8	57.837	841,2	1,76	1,89
Donostia / San Sebastián	58.234	769,4	105.128	822,4	1,81	1,70

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Arabak 29.784 sarrera eta 59.482 gaualdi izan dira azaroan, aurreko urteko hilabete berean baino % 281,2 eta % 230,2 gehiago, hurrenez hurren. Bizkaian, 2021eko azaroan, sarreren kopurua % 387,2 igo da, eta gaualdiena, berriz, % 278,9. Guztira, 96.157 sarrera eta 174.577 gaualdi izan dira. Azkenik, Gipuzkoan, 2021eko azaroan, 86.597 sarrera eta 158.150 gaualdi izan dira; urte arteko igoera % 526,7koa izan da sarreretan eta % 499,0koa gaualdietan. Berezi nabarmentzekoa da Bizkaian eta Gipuzkoan izandako atzerriko jatorriko sarreren hazkundera, 10 aldiz handitu baita 2020ko azaroan ikusitako balioa.

Euskal AE osotara hartuta, 2021eko azaroko batez besteko egonaldia 1,85 egunekoa izan da, hau da, 2020ko hilabete berean lortutakoa (2,19 egun) baino laburragoa. 2019ko azaroan, aldagai hori 1,91 egunekoa izan zen.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako betetze-mailak eta errentagarritasuna. 2021eko azaroa

	Betetze-mailak (%)				Errentagarritasuna			
	plazaka		gelaka		ADR (eurotan)		RevPar (eurotan)	
	2021/11	p.p.*	2021/11	p.p.*	2021/11	m/m-12 (%)	2021/11	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	41,8	27,8	53,0	31,8	77,58	27,7	41,13	219,1
ARABA/ÁLAVA	44,6	25,9	61,0	33,0	74,67	32,0	45,56	187,6
Vitoria-Gasteiz	47,0	26,8	66,4	35,5	65,21	13,0	43,27	142,7
BIZKAIA	40,0	25,1	51,0	28,2	75,71	26,1	38,64	182,0
Bilbao	43,7	30,1	53,9	33,4	81,11	26,0	43,73	231,0
GIPUZKOA	43,0	32,0	52,7	36,1	80,87	24,9	42,60	297,8
Donostia / San Sebastián	48,5	39,5	57,2	43,9	92,88	14,5	53,11	394,0

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Azaroko okupazio-mailei dagokienez, Euskal AE osoan % 41,8ra iritsi da plazen arabera neurtuta, eta % 53,0ra logelen arabera neurtuta. 2020ko azaroarekin alderatuta, igoyerak ehuneko 27,8 eta 31,8 puntukoak dira, hurrenez hurren. 2019ko azaroarekin alderatuta, kopuru horiek ehuneko 6,7 puntu beherago daude plazen okupazio-mailaren kasuan, eta 8,8 puntu beherago logelen arabera neurtuta.

Errentagarritasuna, ADRren (eguneko batez besteko tarifa) bidez neurtuta, 77,58 eurora iritsi da Euskal AE osoan. Lurraldeei doakienaz, Gipuzkoa nabarmentzen da 80,87 euroarekin, gero Bizkaia dator 75,71 euroarekin eta, azkenik, Araba 74,67 euroarekin. Hiriburuetan, ADR 92,88 eurokoa da Donostian, 81,11 eurokoa Bilbon eta 65,21 eurokoa Gasteizen. Zifra horiek guztiek urte arteko hazkunde esanguratsuak dakartzate, % 26,0 Bilbon, % 14,5 Donostian eta % 13,0 Gasteizen. 2019ko azaroan, Euskal AE osorako ADR 80,50 eurora iritsi zen, 2021eko azaroan baino 2,92 euro gehiago.

Euskal AEn 41,13 eurokoa izan da RevPar 2021eko azaroan. Gipuzkoaren kasuan 42,60 eurora iritsi da, Araban 45,56 eurora eta Bizkaian 38,64 eurora. 2020ko hilabete berarekin alderatuta, ehunekoak nabarmen egin du gora: % 297,8 Gipuzkoan, % 182,0 Bizkaian eta % 187,6 Araban. 2019ko azaroarekin alderatuta, Euskal AEn, RevPar 8,6 euro beherago kokatu da.

Informazio-oharra. Hotelen azaroko ETHIren estaldura % **91,9koa** izan da. Eustatek eskerrak ematen dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei eginiko ahaleginagatik.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62